

## Inor

**P**antailan hizkiak eta hizkiak nola, halaxe irristatzen zait jendea kalean, joan egiten zait, ihes egiten dit, ikus-tera ere heldu aurretik; ez dira, ez dira jendea besterik, oztopoa bidean, iskin eginda kentzen ditut gainetik, soina zeharka jarrita sartzen naiz biren tartetik, zentzu berean doazenak ezkerretik aurreratzen ditut, hartuta daukat modua, aurrez aurre datorrenak nirekin talka egiteko zenbat denbora beharko duen kalkulatzeko dut, erritmo aldaketa miragarria daukat, pausoa luzatu, soina jiratu eta neure errailera sartzen naiz berri-



**Jira**  
Xabier Gantzarain

ro, banoa, ez nau ezerk geldituko, inora iristerik espero ez dudan arren.

Ez dira, ez dira inor, ez naiz inor, inork inor behar ez duen jendetza baten erdian nabil, ze komunitate osatzen dugu guk, orain hemen gaudenok, zeinentzat balio dute Hanna Arendten hitzek, «ezin inork zoriontsu izan zorion publikoan parte hartu gabe, ezin inork libre izan askatasun publikoan zer den

bizi izan gabe, eta ezin, inork, azkenik, zoriontsu edo libre izan botere politikoan sartu eta haren parte izan gabe», zeinentzat balio dute, balio al dute guretzat; pantailan hizkiak eta kalean jendea irristatzen zaion gizabako bakartuari, isolatuari, zertan laguntzen dio?

## Euskal Herrira

**G**ipuzkoako zaborrak Euskal Herrira. Halaxe dio Gazte Sozialistek edo Sozialista Gazteek (ez dakit euskaraz nola diren) sare sozialetan zabaldu duten pegatina-muntaiak; argi baitago Euskal Presoak Euskal Herrira jartzen duen pegatinaren plagioa dela, mapa eta guzti. Poztekoa da sozialista zaharren ondorengoek Euskal Herria badela onartzea, baina tristea da halako gai baten kontura bromak egitea. Ez dut inoren minarekin jolastea gogoko, eta nahiago nuke neurearekin inork jolastuko ez balu. Batzuentzat, baina, denak balio du. Larriena, ordea, Gipuz-



**Bira**  
Onintza Enbeita

koako zaborrekin egiten ari diren diskurtso txatxua da. Badakit Gipuzkoak birziklatzen ez duenarekin zerbait egin behar dela, baina, beste lurraldeetan ere atez ateko bilketa astiro-astiro sartuz gero, agian nahikoa izango da ditugun zabortegiekin eta errauste plantekin. Euskal Herria osorik hartuta ere, ez da herri handia; beraz, azpiegiturak bana ditza-kegu gure artean. Esaterako, sei airepor-tu ditugu, eta gehienak txikiegiak dira ganorazko hegaldi eskaintza bat egiteko. Lurralde bakoitzak bere gauzak izatea ondo dago, baina halako azpiegitura handiez ari garenean, zabortegiak edo errauste plantak kasu, ondo kalkulatu behar dugu ze eremu geografiko daukagun eta zer behar dugun benetan.

**Zuzendaria:**  
Martxelo Otamendi  
**Zuzendariordea:**  
Iñaki Petxarroman  
**Edizio arduraduna:**  
Andoni Alvarez  
**Argitaratzailea:**  
Euskal Editorea SM  
**Publizitatea:** Bidera  
publizitatea  
**Lege gordailua:**  
SS-0662/03  
**Batzorde parekidea:**  
0712184059

**Egoitza nagusia:**  
Martin Ugalde kultur parkea.  
Gudarien Etorbidea, z/g.  
20140 Andoain.  
**Telefonoa:**  
(0034) 943-30 40 30  
**Faxa:** (0034) 943-30 09 43  
**Webgunea:**  
www.berria.info  
**Posta elektronikoa:**  
berria@berria.info  
**Publizitatea:**  
publi@bidera.eu  
**Harpidetza saila:**  
(0034) 943-30 43 45

**Date:** 14/03/2012  
**Exemplaire:** 2.708  
**Editeur:** Euskal Editorea s.l.  
**Directeur de publication:**  
Martxelo Otamendi  
**Comission paritaire:**  
0712184059  
**Delegation Labourd:**  
Lisses 3, 64100-Baiona.  
Tel.: (0033) 559256220.  
Fax: (0033) 559254303.  
E-mail: lapurdi@berria.info

**ORDEZKARITZAK**  
**Araba:** Bizenta Mogel, 6.  
Posta kodea: 01008  
Gasteiz. Telefonoa:  
945-15 04 52. Erredakzioko  
faxa: 945-14 83 07.  
Posta elektronikoa:  
araba@berria.info.  
**Bizkaia:** Uribitarte kalea, 18,  
3. C. Posta kodea: 48001  
Bilbo. Telefonoa:  
94-435 26 00. Erredakzioko  
faxa: 94-423 49 75.  
Posta elektronikoa:  
bizkaia@berria.info.  
**Lapurdi:** Lisses, 3. Posta  
kodea: 64100 Baiona.  
Telefonoa: 559-25 62 20.  
Faxa: 559-25 43 03.  
Posta elektronikoa:  
lapurdi@berria.info.  
**Nafarroa:** Iratxeko Monaste-  
ria, 45, 13. Posta kodea:  
31011 Iruñea. Telefonoa:  
948-36 66 22.  
Publizitatea: 948-36 66 23.  
Posta elektronikoa:  
nafarroa@berria.info.

berria

# Txillardegia: «Grafito horiek benetakoak dituk»

## Juan Martin Elexpuru Filologoa eta idazlea

**I**nteres handiz jarraitu zuten Txillardegik Iruñea-Veleiako auzia. Aztarnategia ere bisitatu zuten 2006ko ekainean, aurki-kuntzen berri eman eta egun gutxira. Taldean, Eliseo Gilek gidatutako bisita batean, doktordutza tesi batean epai-mahaiko egonda gero. Irakurritu zituen, besteak beste, Lakarraren, Gorrochateguiren eta Iglesiasen txostena eta nire liburua. *Sos Iruña-Veleia*-ren manifestua ere sinatu zuten. Sarri hitz egin genuen gaiaz aurrez aurre zein e-postaz, telefonoz edo gutunez. 2009ko abenduan (oso makal zebilen ordura-ko), hiru gutun idatzi zizkidan bere ohiko kartulina txukunetan. Bere iritziak erabiltzeko baimena eman zidan. Hona hemen lehenengoa:

«Donostia, 2009ko abenduaren 21 (Santomasak). Kaixo Juan Martin: Hire liburua erosi diat (Arabe-ra Sailekoa). BIKAINA duk. Hori guztia ikusita, zalantzarik ez diat: «grafito» horiek benetakoak dituk. Eta hor somatzen den euskara euskalki arkaiko bat duk. Gorrotxategi eta Lakarra (hau batez ere) oker zeudek. Hector Iglesiasen liburua ere (*Les inscriptions de Veleia-Iruña*) BIKAINA duk. Gizon honek asko zekik zalantzarik gabe. Zorionak lemari eutsi diozuen guztioi, eta hiri bereziki.

Ohar pare bat. Hire liburuko 76. orrialdean ageri den esakuna:

*Yaveh zutan izana* arkaikoa duk. Jainkoari, Johannes Leizarraga XVI. mendean bezala, hika mintzo zaiok. Alegia: *Yaveh zutan izana*, hika zegok: *Yaveh zeruetan izana*. Guk batuaz idatziko genikek: *Yaveh ze uetan haizena*. Baina Leizarragak (ikus hire liburuko 83. orr.) ez diik *hi haiz* erabiltzen, *hi aiz* baizik.

(*aicén* eta beste = ikus Lafonen Tesi bikaina, «*Le système du verbe basque au XVI. siècle*»). Bi tomatan). Hortaz: *Yaveh zutan izana* hika garbia duk. III. mendean Jainkoari hika mintzatzea norma-la duk. Leizarragak ONGI idatzi zian.

Bestetik guk gaurtxe ere: Su → Surtan esaten diagu. Oso posible duk, beraz: Zeru → *zerutan* gertatzea. Zutan forma hori ez zaidak harrigarriegi iruditzen. Errokarieraz (ik. Azkue, Dict.) bazegok forma bitxi bat = ZEURU; p. 437). Horretatik soma daitekek \*zu(r)u bat; inesibo arkaikoan \*zutan (<\*zurutan). Posible duk.

Hector Iglesiasen lana, bestalde, BIKAINA duk. Agian zerbait idatzi dik honetaz.

Besarkada bat eta Maritxuri goraintzi. Joseluis.

PS. Txorabioekin eta abar nabilek azkeneko bizpahiru aste honetan. Ez diat ordenagailua piztuzten ere. Horregatik hau postaz bidaltzea.»

Hurrengo egunean beste gutun bat bidali zidan zenbait argibide emanez:

«Donostia, 2009/XII/22. Kaixo Juan Martin: Berriro ni. Aditzari buruzko lanik onena, nire ustez, Jean Larrasquet-ena duk: bi

«Grafito» horiek benetakoak dituk. Eta hor somatzen den euskara euskalki arkaiko bat duk

tomotan, 1939; bata Gramatikaz, bestea Hiztegia. Hor agertzen dituk: (h)iz; baina ehiz, eta behiz. Niz, iz, bai. h agertu eta desagertu egiten. Azentu kontua, ZIUR. Bigarren silaban h, lehenengo silaban ø.

Hizana, beraz, izana duk gaurko zubereraz. Eta ez \*hizana. (Veleian bezala). Veleiako izana, hitz batez, normala duk beraz; eta ez \*hizana. Hi iz, beraz.

Joseluis»

Gutun hauek jaso bezain laster, telefonoz adierazi nion ea animatzen zen gai honetaz artikulua bat idaztera. Osasunak ez ziola laguntzen eta ezetz erantzun, baina bere iritziak erabiltzeko baimena eman zidan bere azken gutunean:

«Donostia, 2009/XII/29. Kaixo Juan Martin: Berriro ni. URTEBERRI ON, hasteko. Bihar bi mediku ikusi behar dizkiat: xx generalista eta xx radiologo. Honekin gauza bakar bat adierazi diat: ez nagoela «batallak» egiteko trenpuan. Horregatik nahiago diat ez «agertu»; osasunak ez baitit hori aholkatzen. Zoritzarrez! Mila liskarretan sartu nauk luzaz baina orain 80 beteta, ez litzakek zuhurra.

Baina Veleiako «falsifikatzaileak»... asko zekian!!(?) Hor, funtsean, euskara arkaikoaren zantzuak dituk. Baina Lakarrari ez zaiok hau gustatzen. Denborak erranen. Artikulurik egiterik, ezin. Nik neure iritziak emango dizkiat. Eta ongi baderitzek, erabil. Besarkada bat.

Joseluis.»

Gutunak eskaneatuta aurki daitezke [sos-irunaveleia.org](http://sos-irunaveleia.org) webgunean eta nire blogean.